



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-09-18**

VI,URTEA 1.511.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

10 urteko espetxe zigorra ezarri dio Auzitegi Nazionalak Julen Zelaraini

VILLABONA Erakunde armatuko kide eta buruzagi izatea leporatu diote; atzo espetxeratu zuten epaia eman ostean

MOBILIZAZIOAK Eskualdeko hainbat herritan egin ziren atzo elkarretaratzeak; bihar, eskualdekoa Villabonan »



Villabonan batzar informatiboa egin zuten, eta 100 lagun inguru izan ziren. Ondoren manifestazioa egin zuten herriko kaleetatik. I. GARCIA



Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua, Lazkano eta Amenabar Zizurkilgo eta Asteasuko alkateak, atzo. HITZA

Gaurtik igandera arte zabalik, X. Garagardo Festa

TOLOSA 25 garagardo mota izango dira aukeran; 1.300 lagunek afaltzeko lekua egongo da »2

ASTEASU ETA ZIZURKIL LOTZEN DITUEN BIDEGORRIA ZABALIK

AZPIEGITURAK Atzo egin zuten bi herrien arteko bidegorriaren inaugurazioa; 3,2 kilometro osatzeko 12 hilabete iraun dute lanek »4

txokoa

5 sarrera pare
zozketan

**Tolosako
Leidorren**

Irailak 19 ostirala
20:30ean



ezker-eskuma
antzezlan

5 sarrera pare
zozketan

**Tolosako
Leidorren**

Irailak 20 larunbata
17:00etan



Bremengo Musikariak
antzezlan

Kolore eta zapore guztietakoak

Gastronomia » Gaurtik igandera arte egongo da zabalik X. Garagardo Festak; garagardoaz gain, ukondoek eta saltxitxek ez dute hutsik egingo.

INIGO TERRADILLOS

Asteburuko ohiko bi egunetik haratago, gaurtik igandera arte luza-tuko da festa Tolosan. Festa berezia, gainera, garagardo ardatz duena, eta urtetik urtera garai honetan beharrezko hitzordu bilakatzeko doana, Garagardo Festa, alegia.

Hamar urte beteko ditu aurtren Judo taldeak, Tolosa CF Txirrindularitza taldeak eta Tolosaldea IKTK, Tolosako Udalaren laguntzarekin antolatzen duten Garagardo Festak. Urtero bezala, jatekoak eta edatekoak ez dute hutsik egingo, eta horretaz gain, giro polita ziurtaturik dago Zerkausion.

Hau guztia posible egiteko, ordea, 300 lagun egon dira eta egongo dira gaurtik igandera, zerbitzatzeko, sukaldean, garbitzen... Hauek talde antolatzaileetako ki-deak izango dira. Izan ere, kontuan hartu behar da, lau egunetan zehar ateratzen duten dirua hiru kirol taldeen artean banatuko dutela urtean zehar dituzten beharretan erabil dezaten.

1.300 lagunentzat lekua

7 garagardo etxe izango dira aurtren Garagardo Festan. Denera, beraz, 25 garagardo mota desberdin dastatu ahal dira, eta beti bezala, noski, limoi zaporekoak, beltzak, horiak, gorriak, ilunak eta alkoho-

lik gabeak egongo dira aukeran. Era guztietako garagardoak egongo dira, beraz, gustu desberdinetarako edota probatu ahal izateko 9.000-10.000 garagardo litro, etxe guztien artean.

Baina, edateko aukera anitza izateaz gain, jatekoak ere nahi adina izango da. 2.000 ukondo eta 4.000 saltxitxa izango dituzte prest zerbitzatzeko, eta afaltzeko 5 jatetxe atondu dituzte, Plaza Zaharrea, Solana kalean, Zerkausion, eta Zerkausionen goiko pisuan eta behekoan. 1.300 lagunentzat izango da lekua.

Aurtengo berrikuntza bezala, bereziki gaztetxoenei zuzenduta, ogitarteak ere prestatuko dituzte, eta baita alemaniar erako burruntzia ere.

Esualdeko txirrindulariekin inaugurazioa

Bestalde, garagardo izango du ardatz Festak, baina, horretaz gain, hainbat ekitaldi gozatzeko aukera ere izango da lau egunetan zehar. Musika eta kirolarekin lotuak izango dira hauek. Hain zuzen ere, gaur, 20:00etan egingo duten inauguraziorako kirolariak aukeratu dituzte antolatzaileek. Esualdeko Leire Olaberria, Irene San Sebastian, Ana Usabiaga eta Arantzazu Azpirozek izango dute irekieraren ardura.

» EGITARAUA

Irailak 18, gaur

■ **20:00.** Inaugurazioa esualdeko emakumezko txirrindulariekin, eta Leire Agirre akordeoi-jotzailearekin.

Irailak 19, bigar

■ **20:00.** Tolosako Musika Banda, Zerkausion.
■ **23:00.** DJ Black, Zerkausion.

Irailak 20, etzi

■ **16:00.** Pedal Eguna, San Franziskon.

■ **18:00.** Urrezko Aizkora saioa, Trianguloan.

■ **20:00.** Txaranga izango da Zerkausion.

■ **23:00.** DJ Black-en musika Zerkausion.

Irailak 21, igandea

■ **17:00.** Umeentzako tailerrak Plaza Zaharrea. Triziko zirkuitua Trianguloan.

■ **18:00.** Xake erraldoia Plaza Zaharrea.

■ **20:00.** Txalaparta Zerkausion.



Guztia prest utzi ondoren, atzo itxura hau zuen Zerkausiak. Gaurtik aurrera jendez beteko da... I. TERRADILLOS

«Merezi du lan hau egiteak jendea giro onean ikusten duzulako»

ASIER BAKAIKOA » Tolosako Udaleko kirol teknikaria

I. TERRADILLOS

Azken egunetan buru-belarri egon da lanean, gainerako antolatzaileak bezala, gaurtik aurrera X. Garagardo Festa prest egon dadin. Aurtengoaren xehetasunen berri eman du kirol teknikariak.

Gaur irekiko duzue X. Garagardo Festa. Era berezian, gainera: bertako txirrindulariekin.

Bai. Nolabaiteko omenalditoxa egitea merezi zutela uste genuen bertako emakumezko txirrindulariek, oso maila ona dutela erakutsi baitute. Hor izango ditugu, beraz, Leire Olaberria ikaztegitarra, Irene San Sebastian tolosarra, Ana Usabiaga ordizierra eta Arantzazu Azpiroz berastegierra. Itsaso Leunda hernialdearrak ere egon behar zuen, baina ezingo du. Aitor Elduairen egongo da aurkezpen lanak egiten, eta dantzariak agurra

dantzatzeko diete omen duei. Hala-ber, Leire Agirre izango da akordeoia jotzen.

Hainbat berrikuntza ditu aurtengo Festak?

Bai. Beste urteetan baino garagardo gehiago izango dira aukeran, 25, hain zuzen. Horien artean normalak direnak ere gehiago dira aurtren. Aurtren saltxitxa ogitarteak ere ematea pentsatu genuen, batez ere gaztetxoengan pentsatu, hutsune hori baitzegoen. Eta alemaniar erako burruntzia sartzea ere pentsatu dugu.

Aurrekoetan bezala, jende ugari gerturatzeara esperoko duzue, ezta?

Eguraldiak errespetatzen badu, jen de asko izango dela uste dugu, hala nahi dugu behintzat. Giro polita sortzen da Garagardo Festan, eta aukera polita da.

Zergatik du hain harrera ona Garagardo Festak?

Jende askorekin biltzeko balio duen festa izan daitekeelako. Oso giro berezia sortzen da bertan, adin askotariko jendearekin egin daitekeelako. Garagardo edan edo dastatzeko aukera duzu, afaltzeko ere koadrilan, eta paranda egiteko ere bai.

Garagardo Festa antolatzen duten hiru taldeentzat da bertan ateratzeko dirua. Merezi al du hainbeste lan egiteak?

300 pertsona aritzen gara lanean. duela bi hilabete hasi ginen bilere-tan eta, eta gero dena amaituta, gastuak kendu eta banatu egiten da dirua. Nik uste merezi duela lan hau egiteak, baina jendea gustura eta giro onean ikustegatik, bestela, sekulako lana baita ateratzen den dirurako.

@ Zurea da hitza. Esualdeari buruz dituzun berriak sartzeko aukera ematen dizu esualdeko egunkariaren webguneak. Zurea da hitza izeneko atalera jo besterik ez duzu egin behar horretarako. Bertan, kekak, iradokizunak, eskerrak... sar ditzakezu, eta argazkiekin lagundurik nahi izanez gero. Orain arte sartutakoak ere ikus ditzakezu, eta iritziak emateko aukera ere baduzu. Atal honetan sartzen dituzuen berriak ostiralero argitaratzen ditugu egunkarian:

www.tolosaldekohitza.info

BARNE ANTOLAKETAKO ARDURADUNA (08BAA Erreferentzia)
Euskal Editorea SL egoitza nagusia Andoainen duen enpresak Barne Antolaketako Arduraduna lanpostua bete behar du aldi baterako. Lanpostuko zeregin nagusia taldeko barne antolaketak kudeatzea eta laneko prozesu eta emaitzen jarraipena egin eta dokumentatzea izango da.

Eskaintzen da:

- 18 hilabeteko kontratua.
- Astean 20 orduko lanaldia.
- Berehala hastea.

Eskatzen da:

- Prozesuen antolaketaren eta kalitate sistemen inguruko ezagutza izatea.
- Unibertsitate mailako ikasketak izatea kontuan hartuko da.
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Datuak antolatzea eta kudeatzeko gaitasuna izatea.
- Komunikaziorako gaitasuna izatea.
- Antzeko lanetan esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Lanpostua betetzeko interesa duenak CV eguneratuta bidal dezala, erreferentzia zehatzuz, gizabaliabideak@jarduna.net helbidera, irailaren 26a baino lehen.

HITZA lanpostua

irutxuloko HITZAk

KAZETARIA BEHAR DU

Eskatzen da:

- Euskarazko kazetaritzan eskarmentua izatea.
- Donostia ezagutzea baloratuko da

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 25a baino lehen:
donostia@irutxulokohitza.info edo
deitu **943-46 72 36** telefono zenbakira



Irene Larraza kultur teknikari berria, Andoni Iturzaetaekin batera. I.T.

Aniztasuna eta kalitatea nagusi, udazken honetako kultur egitarauaren baitan

Kultura » Dantza, antzerkia, musika, bertsoak, erakusketak, zinema... izango dira datorren hilabeteetan.

ESTIEZEIZA

Uda amaitzeko egun gutxi falta diren honetan, udazkenara begira hasi dira Udaleko Kultura sailekoak. Hala, egitarau «anitzta eta oparua» prestatu dute datozen hilabeteetarako. Aurreko urteetako ildoari jarraituz, «kalitatezko egitaraua» osatzen saiatu dira. Oreak lortzeko bide horretan, Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak azaldukoaren arabera, «adin ezberdinetako ikuslegoarentzako antzerkiak ekarriko ditugu». Bestalde, hizkuntzari dagokionean, euskara nahiz gaztelaniaz izango dira saioak.

Antzerkiari dagokionean, asteburu honetan ikusi ahal izango dira lehen bi saioak. Alde batetik, ostrialean, helduentzat, *Ezker eskuma* izeneko lana taularatuko dute. Larunbatean berriz, haurren txanda izango da, eta Bremengo

Musikariak izango dira Leidor antzokian. Bestalde, antolatzaileek erakutsi nahi dutena da Leidorren mota eta estilo guztietako arte eszenikoentzako lekua izango dela. Bestalde, Iturzaeta aipatu zuen, esfortzu berezia egin dutela gaztelarazko antzerkiak ekartzeko garaian, «hauek lortzea ez baita horren erraza izan».

Zuzeneko emanaldien kopurua handitzearen ondorioz, zine emanaldi gutxiago izango dira datozen hilabeteetan. Hala ere, garbi utzi dute kultura sailekoek, zinemaren aldeko apustua egingen ari direla, eta film kopurua ez dela gutxituko, nahiz saioak ez izan beste zenbait hilabeteetan bezain beste. Bestalde, irailean egin zuten bezala, abonua bultzatzen saiatuko dira. Jendea, saio ezberdinetara joan ahal izateko, eta gainera, prezio baxuan.

Musika emanaldiei dagokionean, *Mundua Tolosan* zikloarekin jarraituz, punta-puntako abeslariak ikusi eta entzun ahal izango dira udazken honetan Leidorren. Hasteko, Madrereus taldeko ahotza den Teresa Salgueiro, Ensemble Lusitania boskotearekin batera

ariko da urriaren 25ean. Bi aste beranduago, Kroke talde poloniarra izango da gurean Seventh Trip lana aurkezten.

Aurtengorako prestatutako ikuskizun berezi hauez gain, Nazioarte mailako Abesbatza Lehia-ketza eta Txotxongilo jaialdiaz gozatuko aukera izango dute tolosarrak nahiz ingurukoak. Lehen urriaren 29an hasiko da, eta bigarrena, hilabete beranduago.

Eskualdeko artistentzat ere eszenatoki da Leidor

Kanpoko artistez gain, Tolosako entzako ere badago toki egitarau honetan. Horren adibide, *Evolution & Love* musika, antzerki eta dantza ikuskizuna. Egileen arabera, «*Evolution & Love*, amodioa eta noreberaren sinesteen aldeko borrokararen bideko istorioa da. Askatasuna eta konpromisoa aurrez aurre jartzen ditu, maiz libertinatzen gaizki ulertua dugun amodio askatasuna zalantzan jartzeko». Bestetik, Ibarra Alurr dantza taldeak bere azken lana aurkeztuko du. Hau, Eneko Aritzaren Sua filmari oinarrituta dago, eta aurkezpen biran dihardute orain.

» UDAZKENEKO KULTUR EGITARAUA

Antzerkia

- **'Ezker eskuma'**. Bihar, 20:30ean, Aizpea Goenagaren antzezlan hau izango da Leidorren.
- **Bremengo musikariak**. Etzi, 17:00etan Teatro Paraisok haurrentzako antzerki hau eskainiko du Leidorren.
- **'Al otro lado'**. Charo Lopezen konpainiaren eskutik, urriaren 10ean, 20:30ean izango da ikusgai Leidor antzokian.
- **'Mi primera vez'**. Azaroaren 7an, 20:30ean eskainiko dute lan hau Leidor antzokian. Ken Daventport da egilea, eta Gabriel Olivares, zuzendaria.
- **Alproja antzerki taldea**. AECC Minbiziaren Aurkako Elkarteak antolatutako emanaldi hau azaroaren 14rako. Saioa 20:30ean izango da.

Txotxongiloak

- **Titirijai 2008**. Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta, azaroaren 29tik abenduaren 7ra bitartean ospatuko da jaialdia.

Musika

- **Kolas mago harrigarria**. Urriaren 11n, 17:00etan izango da Opera Divertimento konpainiaren haurrentzako opera hau.
- **'El Caserio'**. Tolosako Orfeoik antolatuta, bere 10. urteurrena ospatzeko kontzertu berezi bat eskainiko du urriaren 17an, 20:30etik aurrera.
- **Evolution & love**. Musika, antzerkia eta dantza uztartzen dituen emanaldi hau urriaren 24ean izango da Leidorren, 20:30etik aurrera.
- **Teresa Salgueiro & Ensemble Lusitania**. *Mundua Tolosan* zikloaren baitan, urriaren 25ean, 20:30ean izango da emanaldi hau.
- **Nazioarteko Abesbatza Lehia-keta**. Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta urriaren 29tik azaroaren 2ra bitartean ospatuko da.
- **Kroke**. *Mundua Tolosan* zikloaren baitan, taldeak bere azken lana

den Seventh Trip aurkeztuko du. Emanaldia azaroaren 8an izango da, 20:30etik aurrera.

Dantza

- **'Lamien basoa'**. Gero Axular dantza taldeak antolatuta, Espainos Elkartearen aldeko emanaldia izango da irailaren 27an, 17:00etatik aurrera.
- **Bellydance superstars**. Mundua Tolosan zikloaren baitan izango da dantza emanaldi hau, azaroaren 15ean, 20:30etik aurrera.
- **'Sua'**. Alurr dantza taldeak prestatutako bere azken lana aurkeztuko du azaroaren 16an, 19:30etik aurrera.

Erakusketak

- **Sükrü Karakus**. Aranburuko behe solairuan ikusgai da Turkesa erakusketa, urriaren 9a arte.
- **Vanessa Alzate**. Urriaren 17tik azaroaren 15ra bitartean ikusgai izango dira Aranburun, bere pintura, eskultura, grabatu eta collageak.
- **Txotxongiloen jaialdiko erakusketa**. Errusiarako leihoa erakusketatik ikusgai izango da Txotxongilo jaialdiarekin batera.
- **'El Bosque'**. Ingurugiro sailak antolatutako erakusketa abenduaren 16tik urtarilerara bitartean egongo da ikusgai.
- **Jose Luis Urdanpilleta**. Bere argazkiak ikusgai izango dira irailaren 26tik azaroaren 8ra.
- **Juan Jose Agirre Aizpurua**. Margolariaren oleoak ikusgai egongo dira abenduaren 12tik urtarileraren 17ra bitartean.

Bestelakoak

- **Bertso saioa**. Euskara batzordeak antolatuta, goi mailako bertsolariak izango dira Leidor antzokian, azaroaren 16an. 19:30ean hasiko da saioa.
- **Kultura gorraren jardunaldiak**. Gairditzien elkarteak antolatuta, azaroaren 21etik 22ra bitartean izango dira.

EUSKADIKO EKONOMIA
INDARBERRITZEKO AKORDIOA

OSO GERTU SENTITUKO DUZU

12.800 milioi euroko inbertsio publikoa 4 urtetan.
Euskadin ekonomia eta enplegua indarberritzeko batu gara euskal erakundeak.
Eta zuk oso gertu sentituko duzu.

Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia

BFA DFB
Euzko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3,2 kilometro dituen Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorria inauguratuta



Iñaki Amenabar, Carlos Ormazabal eta Marian Lazkano atzoko inaugurazioan. I. GARCIA



Oinez ibiltzeko sarri erabiltzen du jendeak bidegorria. I. GARCIA

Azpiegiturak » Ekitaldian Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorrekotua diputatua eta bi herrietako alkateak izan ziren.

ERREDAKZIOA

Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorria inauguratu zuten atzo Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorrekotua diputatua, Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak eta Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak. Guztira 3,2 kilometro ditu ibilbideak eta 2 milioitik gorako aurrekontua izan du. Oinezkoak nahiz txirrindulariak ibil daitezke bertatik.

Azken hauek gehienez 20 kilometro orduko abiadura mugitu daitezke.

Gorka Ormazabalek herritarrei bidegorria erabil dezaten gonbita egin zuen: «Motordunik gabeko mugikortasunaren eta iraunkortasunaren sustapena gauzatzeko, behar-beharrezkoa da, bidegorrien azpiegitura ez ezik, baita herritarren konpromisoa ere bizikletara erabiltzeko». Erabilera hori aisiarako baliabide gisa bakarrik ez izateko azaldu zuen diputatuak, baita «garraio bide gisa ere, mugikortasun iraunkorrekotua hautabiderik onena baita batez beste bost kilometroko distantzietan ibiltzeko».

Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak eskerrak eman zizkion Foru Aldundiari eta Villabona, Zizurkil eta Asteasuko udalen artean egon den lankidetzan nabarmendu zuen. «Bidegorria Villabonarekin lotuko da aurrerago», gaineratu zuen. Marian Lazkano alkateak animatu zien herritarrei bidegorria erabiltzea eta erabilpen hori «modu egokian» izatea. Lazkanok azaldu zuenez, bidegorriak bat egiten du «mugikortasun iraunkorrekotua».

Datorren urtean, argiak

3,2 kilometroko ibilbidea osatzeko hamabi hilabete iraun dute lanek. Zabalera hiru metrokoa du eta profil laua du, aldapa handiagoko zati labur bat duela. Trazatua ibaiertzeko nekazaritza eremuetatik doa eta industria pabilioiak inguratzen ditu Asteasuko sarrean. Diputatuak azaldu zuenez, datorren urtean ibilbidean zehar argiak jartzeko asmoa du Foru Aldundiak. Bestalde, bidegorria egiteko lanez baliatuta, zuntz optikoren eroanbidea lurperatu da.

Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorria inauguratuta, urte bukaerarako ehun kilometro baino gehiago izango ditu Foru Aldundiak Gipuzkoan egindako bidegorrien sareak. «Gero eta gertuago gaude Gipuzkoako oinarritzako sareak etorkizunean izango dituen 378 kilometroak osatzeko helburutik», azaldu zuen Ormazabalek.

Laburrak

Udalak eskularen ikastaroa antolatuta du helduentzako

ANOETA • Helduentzako eskularen ikastaroa antolatuta du Udalak. Urriaren 7tik ekainaren 3ra arte iraungo du eta prezioa 65 eurokoa da, materialak barne. Asteartetan izango da ikastaroa, 15:15etik 17:15era. Izena udal bulegoetan edo kiroldegian eman daiteke eta irailaren 30a da horretarako azken eguna.

Haurrentzako ikastaroetan izena emateko aukera

ANOETA • Haurrentzako kultur ikastaroetan izena emateko epea bihar bukatzen da, eta udal bulegoetan edo kiroldegian egin daiteke. Euskal dantzak, pilota, antzerkia, xakea, marrazketa eta plastika egin daitezke. Bestalde, 15 urtetik aurrerakoentzat ere euskal dantzak antolatuta dira. Ostiraletan izango dira saioak, 19:45etik 21:15era kiroldegian, eta prezioa 70,11 eurokoa da.

Kiroldegiko abonua eta ikastaroak zehaztuta

ASTEASU • Usarrabi kiroldegia zehaztu ditu aurtengorako abonuen prezioak eta bertan emango diren ikastaroak. Abonuei dagokionez, urte osorako helduek 100 euro ordaindu behar dituzte, gazteek 75 euro eta jubilatuak 50 euro. Hiruhilabeteko kuota 45 eurokoa da eguneroko sarrera 2,5 euro. Bestalde, ondorengo ikastaroetan izena eman daiteke: hirugarren adinekoentzat gimnastika, aerobika, mantenuko gimnastika, yoga, pilates, ciclo indoor eta ciclo indoor gazteentzat (12 eta 18 urte bitartean).

Gaur inauguratuko dute kale hezitzaileen lokala

ZIZURKIL • Kale hezitzaileen lokal berriaren inaugurazioa egingo da gaur, 17:00etan. Bertara gonbidatu dituzte herriko gazteak eta hauen gurasoak, denek lokal berria ezagutu dezaten. Ateak ireki eta gero merienda eskainiko zaie bertara joaten diren guztiei. Lokala Aurrera Plazaren 3. zenbakian dago, beheko solairuan.

BERTSO-ANTZERKIA




LARUNBATA
Irailak 20
VILLABONAKO
Gurea Antzokian
17:00etan
DOAN

VILLABONAKO
UDALA



KULTURA
BATZORDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Kirol eta Kultur Etxean igogailua jartzen ari dira

ALEGIA ■ Kultur eta Kirol Etxea zutailaren 21etik irailaren 15era arte itxita egon da Alegian, lanak zirela medio. Obrarik handiena igogailuarena izan da: irisgarritasun planaren baitangoa izan da, hau da, ezintasun fisikoak dituztenek edo mugitzeko arazoak dituztenek Kultur Etxeak dituen zerbitzu guztiez gozatzeko, alegia. Aldageletatik hasita, harrera eta batzar areto-
ra, pilotalekuko gradetara, liburutegira, ludotekara edota eskulan eta dantza gelara joan ahal izango dira datorren astetik aurrera. N.U.

Mikel Garmendiaren omenez, mendi irteera

ERREDAKZIOA

Datorren igandean Orendaingo Mikel Garmendia zenaren omenez Txindokira mendi irteera egingo dute eta ondoren bere oroi-garriaren (Txindokiazpian) ondoren bere aldeko ekitaldi xume bat egingo dute (bertsoak...).

08:00etan Larraizko Langan (Txindokira igoko den guztiarentzat) elkartuko dira eta bestela, aurrera 09:00etan Orendaingo oi-

ren oroigarriaino abiatuko dira. 11:00ak aldera oroigarriaren ondoren Mikel Garmendiaren aldeko ekitaldi xumea izango da eta bukatu ondoren, 12:00ak aldera handik autobus bat Orendainera itzuliko da eta bertan Eltxo Elkartearen haiketako prestegongo da.

Mikel Garmendia orendaindarrira joan den urtarilean mendian hil zen eta herri kirolarizale amorratuaren.

Barazki eta Animalien II. Azokarako izen-ematea

ERREDAKZIOA

Alegian urriaren 19an Animalia eta Barazkien II. Azoka antolatuko dute Kultur Hilabeteari hasiera emanez. Bertan parte hartu nahi dutenak jada hasi daitezke izena ematen Kultur Etxean. Garrantzitsua da parte-hartzaile guztiek ematea izena, horrela egunean bertan zer material (mahaia eta abar) beharko den zehazten joateko.

Iaz azaroan egin zen azoka, bainasasoiko produktu gehiago izatearren, eguna aurreratzeko propo-

samena egin zioten parte hartzaileek Kultur Batzordeari, eta beraz, aurtun, urriko hirugarren igandean izango da, goizez.

Produktuak ikusteko edota erosteko

Animaliak (abereak, hegaztiak...), barazkiak, landareak, eta etxeko produktuak izango dira azokan ikusgai edota erosgai, hala nahi duenak bere produktuak saltzeko aukera ere izango baitu. Parte-hartzaileak «aurten ere herritarrek izatea eskatzen da».

Laburrak

Etxeko arriskuei buruzko hitzaldia, astelehenean

IKAZTEGIETA ■ Hilaren 22an, astelehena, 17:00etan, Kutxako Gizarte Ekintzak antolatutako honako hitzaldia izango da Ikaztegieta Udal Liburutegian: *Etxeko arriskuak eta lehen sorospenak*. Ekintza honen xedea zera da: etxean gerta daitezkeen arrisku eta istripuen berri ematea, behar bezalako prebentzio-neurriak hartzeko eta halako egoeraren bat gertatzen denean nolajokatu jakiteko.

Eskulan ikastaroan izena emateko epea zabalik

BALIARRAIN ■ Baliarrainen urterotegiten duten eskulan ikastaroa antolatu dute. Eguna eta ordua zehaztu dute: asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen. Hasiera batean abendura arte luzatuko litzateke, urriaren 1ean hasita. Izena udaletxean eman behar da, epea hilaren 26an itxiz. Doan da baina erabiltzen den materiala norberaren kontura da. Adin mugarik ez dago.

1944an jaiotakoekin kinto bazkaria, hilaren 27an

AMEZKETA ■ Hilaren 27an (larunbata) 1944an jaiotako amezketarrek kinto bazkaria egiteko asmoa dute (auten 64 urte beteko dituztenak). Bazkari hau Amezketako Behar-tzana jatetxean izango litzateke eta 14:00etan bilduko dira bertan. Bazkarira joateko asmoa dutenek aurretik izena ematea eskatu dute antolatzen aritu direnek, honako telefono zenbakira deituta: 943 65 38 31, hain zuzen.

Mantentze soinketa, helduen soinketa eta yoga, aurtengorako

Altzo ■ Jendeak nahiago duen ikastaroa egin ahal izango da; aukeraketaren ondoren hori izango da eskainiko dutena.

ERREDAKZIOA

Aurreko urteen antzera altzotarako helduen intereseko den ikastaroen bat antolatu nahi dute Altzon. Hauek dira aurtengorako dituzten aukerak: mantentze soin-

keta, helduen soinketa eta yoga. Bai mantentze soinketa eta bai helduen soinketa ere astean 2 egunetan eta egun bakoitzean ordubeteko saioa izango lirateke. Yoga ere izango da, baina astean ordu eta erdiz, egun bakarrean.

Izena emateko azken eguna hilaren 24a izango da, asteazkena eta 13:00ak arte, udaletxean. Ikastaro guztiak egitea ezinezkoa izango denez, izena emateko garaian zein ikastaro nahiago den zehaztea eskatzen da; ondoren, 8 pertsonako

taldea osatzen bada behintzat, interesik handienalortu duen ikastaroa antolatuko dute.

Hala ere, aipatutako hauetatik at beste ikastaroren bat egiteko interesa izanez gero, Udaletxean jakinarazi beharko da, hilaren 24a baino lehen. Ondoren, jasotako proposamena aztertuko da.

Herritarrek aukeratutako emaitzak izanik, idatzi bat banatuko dute ikastaroen hasiera eta ordaindu beharreko kuotaren berri emanez.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Fiat Ducato, 2007 urtekoa. 120 zaldi. 28.000 kilometro. Lau pertsonentzako, lo egin eta bidaiatzeko hornitua. Klimatizadorea, ABS frenuak, berogailu estatikoa, aurreko eserleku giratorioak. Komuna ere badu. Harremanetarako 626 78 68 17 telefono zenbakira deitu edo amaiaaro@terra.es helbi-

de elektronikora bidali daiteke mezua.

■ **Autoa.** Peugeot Partner diesel. Egoera onean. Interesatuak deitu 649 51 09 41 telefono zenbakira.

LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera behar dugu. Igdanetan jai izango luke.

Interesatuak ondorengo telefono zenbakira dei dezakete: 650 04 31 39.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza bat hartuko genuke alokairuan Tolosan, Ibarra, Villabonan edo inguruetan. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 635 71 24 44.

Pertsona bat behar da Tolosaldeko kafetegi-okindegi baterako

616 73 28 97



Prentsaurrekoa egin zuten atzo, Ibarra plazaan Bartola jaien inguruko balorazioa egiteko. R. CALVO

«Bartolaren eskutik kalera irten gara eta gure aldarria kalean zabaldu dugu»

Ibarra » Herriko festak amaituta, jai alternatiboa egin duen herritar taldeak Bartola Jaien inguruko balorazioa egin du.

R. CALVO

«Elkarlanean zerbait berria, mai-takorra, indartsua eta ausarta sortu genuenaren sentsazioa genuen, eta horrela zen: Bartola jai zen. Bartola herriarekin gustura zegoen eta herritarok Bartolarekin txoratzen», esan zuten atzo, Ibarra jaietan egitarau alternatiboa prestatzen aritu ziren herritarrok.

Izan ere, aurten Ibarra jaietan herritar talde batek, «Udal ordezkariak omen direnak» jarraitzen duten «bartzertzaile eta zapaltzaile papera» ikusita, jai alternatiboak antolatzeari ekin zio-

ten. «Norbaitek behin eta berriz baztertu eta zapaltzen baldin bazaitu, ez zara etxeangeratzen, ezer gertatuko ez balitz bezala. Eta jaietan Bartolaren eskutik kalera irten gara. Gure aldarria kalean zabaldu dugu eta herritarrek bat egin dute Bartolarekin», esan zuten.

«Irrifarreak eta muxuak»

Bartolaren jaien barruan antolatutako ekintza desberdinek, azkenean, arrakasta lortu zuten eta ondorioz festen azken egunean, koadrila egunean, «irrifarreak, muxuak eta antzekoak» ziren nagusi antolatzaileen artean. «Gaur oinak lurrean ditugula, isil-isilik eta helburu argi eta garbiarekin lanean jarraitzea besterik ez zaigu gelditzen», argitu zuten zentzu honetan. «Herritarrenganako Udal honen saldukeria salatzen jarraituko dugu. Gazteen ausardia eta inda-

rra, helduen esperientziarekin elkartzen badugu, geldi ezinak izango gara», gaineratu zuten.

Hau guztia dela eta, «euren hitzak bakarrik entzuten duten zapaltzaile eta bartzertzaileek Bartola aurrean izango dute urte guztian». Era berean, «helburu garbi eta argi honen inguruan elkartzen garen herritarrok, atek eta eskuak zabalik ditugula» esan nahi izan zieten ibarrai eta horretarako hamabost egunean behin, astelehenean, elkartzen jarraituko direla adierazi zuten. «Bartolaren trena abian da eta herritarrei etxetik irten eta bagaira igotzeko eskatzen diegu. Mugak hemen norberak norberari bakarrik jartzen dizkio, kolore anitzeko trena baita Bartoloena», azaldu zuten.

Datorren bilera, hortaz, hilaren 29an izango da Ibarra plazaan 22:00etan.

'Ibarra, azoka eta piparra', igandean

Ibarra » Emeterio Arresen eta San Bartolome plazan jarriko dituzte postuak goizetik: aberea, janaria, artisautza, ... izango dira.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak *Ibarra, azoka eta piparra* azoka berezia antolatu du igande honetarako, hilaren 21ean. Bigune nagusi izango dira, Emeterio Arrese parkean, lehena, eta San Bartolome plazan, bestea.

Aipatu lehen gunean, goizeko hamarretan hasiko dira antolatutako ekintza desberdinak eta eguerdiko ordu biak arte iraungo dute. Horiek horrela, goiz osoan zehar Ibarra baserrietako abereak ikusi ahal izango dira; behiak, zaldiak, ardiak, txekorrak, ahun-

tzak eta abar luze bat. Barazkiak, piparrak eta jaki desberdinak ere ikusi eta erosi ahal izango dira. 10:00etatik 12:00etara, gainera, Tolosaldeko XI. Ezti-Txapelketa egingo dute. 10:00etatik 13:00etara, berriz, IV. Euskal Herriko Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute. Aipatu behar da, era berean, Lehiaketa Gastronomikoa parte hartzen dutenek, «piperrada» egin beharko duela Ibarra-kopiparrekin, batetik, eta, bestetik, piparrak egindako beste sei pintxoak egiteko.

Bigarren gunean, San Bartolome plazan, hain zuzen, artisauak, tailerrak eta argazkiak izango dira ikusgai, besteak beste.



Txaramako errepidearen lanak

TXARAMA » Txaramako bizilagunek orain urte asko egin eskaerak lortu du, azkenean, erantzunik. Izan ere, Tolosa-Txaramako errepidea konpontzen hasiak dira jada. Errepidea hobetzeko segurtasun elementuen hobekuntza, Txaramako sarbidearen berrikuntza eta bide guztiaren zoladuraren zaharberitzea burutukodituzte. R. CALVO

Hilberria

INAXIO OLAIZOLA ARREGI

Jauna
-Goian bego-



Egun batean zerura
Eman nuen pausua
Hantxe luzatu zidan
Jainkoak besoa
Eta bertan eskaini
Zorion osoa
Betiko poza eta
Atsedean osoa.



ZUMAIA
2008ko irailaren
18a

Bere emaztea, seme-alaba eta bilobak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



barran elkarretaratzea egin zuten herriko plazan, udaletxearen aurrean. R. CALVO

Julen Zelaraini 10 urteko espetxe zigorra ezarri dio Auzitegi Nazionalak

Villabona » Epaia irakurri ostean espetxean sartu zuten Zelarain, «erakunde armatuko kide eta buruzagi» dela egotzita.

ASIER IMAZ

Julen Zelarain billabonatarri 10 urteko espetxe zigorra ezarri zion atzo Espainiako Auzitegi Nazionalak. Fiskalak eta AVT herri akuzazioak 13 urteko zigorra eskatu zuten Zelarainen aurka.

AAB eta Askatasuna

Madrilgo Auzitegi Nazionalaren Casa de Campoko egoitzan irakurri zuen epaia Teresa Palacios epaileak atzo. 24 euskal herritar elkartu ziren bertan, euren senide eta lagunekin batera. 24 kideetatik 3 aske geratu ziren. Julen Zelarain, Juan Mari Olano eta Aitor Jugori 10 urteko espetxe zigorra ezarri zien Palacios epaileak gidatutako epaimahaia, eta gaimontzeko 18 auziperatuei 8 urtetako espetxe zigorra.

Julen Zelarain «erakunde ar-

matuko kide» izateaz gain, Auzitegi Nazionalaren ustez «erakunde buruzagia» ere bada. Epaia irakurri ostean espetxera eraman zuten billabonatarra, beste 11 kiderekin batera. 8 auziperatu baldintzapean aske geratu dira, epaitegi sinatzerara joan beharko dute.

21 lagun horiek zigortzeaz gain, Amnistiaren Aldeko Batzordeak (AAB) eta Askatasuna legez kanpokoak direla ebazti zuen epaimahaia, eta erakunde bi horiek desgiteko agindu zuen. Lehen ere legez kanpokoak ziren, Baltasar

Garzon epaileak hartutako behin-behineko erabaki baten ondorioz.

Auzitegiaren ustez, «ETArentzat helburuak» jartzen zituzten AABek. «Garbi dago Amnistiaren Aldeko Batzordeentzat ETA ez dela soilik erakunde armatua, fronte politikoa ere bada. Armak ez erabili arren, ETAREN helburuak lortzeko lan egiten zuten sentsibilizazio sozialaren bidez». ETAK AABak «baliatzen» zituen, epaiaren arabera, «presoei agindua helarazteko eta haiek agindu horiei men egiteko».

AAM: «Epaia idatzita zegoen»

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak epaiaren harira eginiko balorazioan, «zirkoa» eta «politikoa» bezalako hitzak erabili zituen: «Epaiketa hasi baino lehen esan genuen epaia idatzita zegoela. Hilabete guzti hauetan ikusi dugun zirkoa epai politiko bati apaindu juridikoa emateko saiakera baino ez da izan».

Euskal Herrian «errepresioak azken urteetan min handia» egin duela onartu zuten eta «torturatuak izan diren 7.000 euskal herritarrak, ehundaka espetxeratuak, ihesean joan direnak, bisitetara bidetan bizia eman duten senideak, GALEk edo gerra zikinak bahitu eta hil dituen euskal militantek, poliziaren kargetan hil direnak...» gogoratu zituzten, «elkartasuna balore indartsua» dela azaltzeko eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren «izaera balore honen gainean eraikitzen» dela azaltzeko. «Errepresioa jasan duenak beti izan du elkartasuna herri honetan, eta ozen adierazi nahi dugu zigorrak zigorrak aurrerantzean ere elkartasuna lantzen eta eskaintzen jarraituko dugula. Eguneroko lan xumeari loturik jarraituko dugu Amnistiaren Aldeko Mugimendua osatzen dugun milaka herritarrok. Espetxeak bete ditzakete euskal presopolitikoak, baina elkartasuna urratsez urrats espetxe guzti horietara iritsiko da, maite ditugun horienagan guztiengana».

Atzo epaitu zituzten euskalduinak ere gogoan izan zituzten, «ohore bat izan da guretzat gaur zigortuak izan diren lagunekin lan egitea urte hauetan» esanaz. Eskualdeko «herri guztietan» elkarretaratzeetara deitu zituen AMM atzokoan. Horretaz gain, bihar 20:00etan eskualdeko manifestazioa egingo dute Villabonan, herriko plazatik irtenda. Herritarrei mobilizazioetan parte hartzekeo deialdia egin zieten.

Leitzako IV. Txapelketaren finalak igandean

Pilota » Amazabal pilotalekuan jokatuko dira 10:00etatik aurrera Binakako Txapelketako bost finalak.

A. IMAZ

Leitzako IV. Txapelketako finalak hilaren 21ean, igandean, jokatuko dira Amazabal pilotalekuan 10:00etatik aurrera.



Iragan urteko Leitzako Pilota Txapelketako finalista guztiak. JAIONE OLAZABAL

20 pilotari eta 10 txapel

Leitzako Binakako Pilota Txapelketaren baitan, bost maila ezberdinetan jokatu dituzte finalak igandean. 20 pilotari 10 txapelen bila 10:00etatik aurrera.

Amazabalen alebin mailako finalak zabalduko du pilota jaialdia. Garziarena-Iribarria bikoteak Sagastibelza-Bakaikoa izango dituzte arerio.

Lehen finala amaitu ostean, infantilena jokatu da: alde batetik

Olano-Artola irtengo dira txapelaren bila eta bestetik Elezkanoren Hermandorena.

Hirugarren finala kadete mailakoa izango da. Arrieta-Jauregi bikoteak Tainta-Arratibel izango dituzte arerio.

Hauen ostean jubenilak irtengo dira: Jaunarena-Zabaleta alde batetik eta bestetik, Ansotegi-Albisu.

Azken finalean, nagusien artekoan, Urtasun-Jauregi eta Renobales-Madariaga ariko dira.

2008ko USATEGIEN ENKANTEA BIRTRIGARRO ETA USOA ARESO(NAFARROA)
TEL 948510327-608928626
Donostiatik 20 minututara Paraderatraino sarbidea kotxez
Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoa burutuko da.
1. enkantea: irailaren 20an, larunbata, 19:00etan
2. enkantea: irailaren 27an, larunbata, 19:00etan

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta karta *Jatetxea*
Bataioak, Jaunartzeak...
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti alai
jatetxea
Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia
© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tososaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tososaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Tolosa CFko beheko taldeetan (infantiletatik jubeniletara) jokatzen duten futbolarien gurasoen bilera Kultur Etxean 19:00etan. Bilera garrantzitsua da.
- **Tolosa.** X. Garagardo Festaren inaugurazioa 20:00etan Leire Olaberría eta eskualdeko beste txirindulari batzuekin. Leire Agirrerren akordeoi kontzertua Zerkausion 20:00etan.
- **Tolosa.** Tolosako Caritas-ek mantak eta lo zakuak behar ditu. Bere egoitzan, parroki etxearen ondoan, entregatu daitezke

Zinema

- **Tolosa.** *West side story* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean. Antolatzailea: Tolosako Zine-Kluba

Ikastaroak

- **Villabona.** Helga Massetani artista argentinarren arte tailerra Sacem lantegi ohian eta Larrea auzoan. Izen-ematea, helgamass@gmail.com edo udal-etxean 8.00etatik 14.00etara (943 692100).
- **Tolosa.** TELP ikastaroa antolatu nahi du Aitzol Udal Euskaltegiak: tentsio uneetan nola jokatu euskaraz aritzeko eskubideari eutsiz. Hamar orduko ikastaroa bi saiotan banatuta, irailaren 25ean eta urriaren 2an. Izen-ematea: Udal Euskaraz zerbitzua 943 697453 zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Finala gero eta gertuago

PEÑAS NEGRAS, BIZKAIA •

Maitane Garmendia Goitia Euskal Herrian gora eta behera aritu da abuztuan. Hau xe kontatu digu: «Abuztuan bi astetan zehar bizikletaz Euskal Herrian barrena ibili eta 7 hiriburuak igaro ondoren, ondorengo argazki hau aukeratu dut zuei bidaltzeko. Bizkaian Peñas Negras-eko inguruetan ateratako argazkia da. Nafarroa eta Arabako lehortasunaren ostean, kostaldera iristeko kilometro gutxi batzuk falta zirela hartutakoa da. Ibilaldi honen ostean paisaia zoragarriak ikusteko kanpora joan beharrik ez dagoela ziurtatzen dizuet!».



HUNGARIA • Hau xe da Josu Regueroren argazkia: «Argazki honetan Danubio ibaiko meandroak agertzen dira, Hungarian. Maiteminduen ibaiak paisaia paregabeak eskaintzen ditu», azaldu du Josu Reguerok bere argazkia bidaltzean.

txokoa **h**

4 afari pare

zozketan

Tolosako
zerkausion
Irailak
18, 19, 20 eta 21ean
ospatuko den
Garagardo
festarako

irabazleak:

- Josune Lasa (Abaltzisketa)
- Martin Otermin (Anoeta)
- Geno Telletxea (Areso)
- Esteban Begiristain (Tolosa)



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Saria jasotzeko HITZA jarriko da zuekin harremanetan.